

Buesa kanpora !

Txillardegi

EUSKAL Herrian benetan euskaraz bizitzen saiatzen garenok, ongi dakigu arrunt gure nazio-hizkuntzaren egoera zertan den. Eguneroko bizieran, bulegoetan, dendetan, osasun-zentroetan, fabriketan, unibertsitateetan, lehenengo hitza euskaraz jaurtizteko behar den bertutea (hitz hau hemen Baxenabartarren modura erabiliz), gero eta handiagoa dela inork baino hobeki dakigu.

Alderantziz, erdara hutsez bizi nahi dutenek, ez dute inoiz arazorik izaten : egoera soziolinguistikoa, Euskaldunen "edukazio ona", erdaldunen harropuzkeria hazkorra eta abar, hor daude, itsu batek ere ikusteko moduan. Hemen bertan, Amasan, 250 lagun dituen auzo euskaldun honetan (erdaldunik ez dago batere, nik uste), erdaraz bizi diren arrotzek etengabe behartzen gaituzte nazio-hizkuntza alde batera uztera. Jehova-ren testigiek, Telefonikakoek, Iberduerokoek, Billabonatik paseatzera igotzen diren espagnolitoek, denek, erdaraz botatzen dute lehenengo hitza (Bigarra ezin, "Bidarte" honetan ; nire ahotik ezpaitute sekula erdarazko hitzik entzuten eta ez entzungo ere. Jakina !).

Jakin badakigu, bestalde, lurraldetasunik gabe geroa segurtaturik duen hizkuntzarik ez dagoela. Quebec-tarrek eta Flandriarrek aspaldidanik dakite

hau eta behin eta berriz irakatsi dute. Gauzak horrela "Euzko jaurlaritza"tik beretik Buesak behin eta berriz bota dituenak ezagutz gero, aski da aisa gure egoera ulertzeko. Horrelako etsairik eta horrelako postutan kokaturik, ez da inon gertatzen. Hemen bai. Hemen hori irentsi behar da, irribarrez irentsi. Txalotu ere bai. "Euzko jaurlaritza" hori *iseka eta burla* hutsa zaigula esateko, koskabiloak behar bide dira. Horrerraino ekarri baikaituzte gure "jaurlariek" !

Jakin badakigu lurralde-tasunik gabe geroa segurtaturik duen hizkuntzarik ez dagoela.

Lotsagarrikeria hau salatzea, beharrezkoa da : eskolaren eta euskararen beraren etorkizuna horrelako jendilajeen eskuetan egongo deno, salaketa-lanari eutsi beharko diogu. Ahalkea osotara galdu ez badugu, bederen. Geure prentsan, geure organizazioetan, geure biltokietan, etengabe argitu behar dugu "Hezkuntza saila" noren eskuetan dagoen. Baina barnerago behar dugu joan geure azterketa horretan. Buesa hor *nork jarri*

duen ez baita ahantzi behar, nork atxekitzen duen, eta zeren truke, ikertuz. Girotu egin behar da *eskandalo* honen kontrako protesta. Eta *Nazio-manifestaldi* handi bat egin behar da, ardatzat eskabide hau ozenki airatuz : *Buesa kanpora !* Ez dago Buesa bakarrik. Recalde-ren ondoren etorriren Buesa (eta Recalderen anti-euskalduntasuna ez da berrito erakutsi beharrik), artean Barberà erdi-txorizoa Baskongadetako errektore luzaz egon ondoren ; eta urte hauetan Osakidetza erabat eta guztiz sakonki erdaldunduta jarri ondoren. ETB 2-ko ahalke nazionala ere gogoan atxeki behar dugularik, bere "sevillanak" eta guzti.

Guztiz dira gehiegi, eta sobera mila aldiz, Gasteizko "Jaurlaritza"tik euskararen kontra etorri diren erasoak. Garaia da eskandalo sineskaitz horren akaberarako urrats sendoak mamitzen hasteko. Buesa-ren kasoa, jakina, Baskongadei dagokie bakarrik : Jaurlaritza ez baita nazionala ezta hedadura ofizialaz ere (Abertzaletasunaren aldetik zer den garbi dago alde guztietatik, industriaren ezeztapen lotsagaldua barne). *Euskaldun guztioi dagokigu* arazo hau, hitz batez ; eta Iparraldekoek ere bai.

Maiatzaren 23ko Nazio-manifestaldia, hitz batez, *mugarri* bihurtu behar dugu. Buesa kanpora! Gora Euskadi euskalduna !

Le chanteur Renaud pour Casabonne

EN TRE la poire et le fromage, Patrick Zelnick (...) nous fit signer une pétition pour soutenir l'ouverture de ses magasins le dimanche. Renaud en profita pour sortir la sienne, la posa sur la table, la proposa à tout le monde, je parle bien évidemment de sa pétition... Elle demandait l'arrêt de la torture, le dimanche, dans les commissariats espagnols et, accessoirement, la libération d'un pote à lui, Jean-Philippe Casabonne, emprisonné depuis plus de quatre ans dans le sinistre pénitencier d'Herrera-de-la-Mancha, de l'autre côté des Pyrénées, et ce pour avoir, en France, ouvert sa porte à des réfugiés basques menacés d'expulsion. Quelqu'un qui connaissait le dossier lui rétorqua que ces réfugiés étaient, en l'occurrence, des membres d'ETA et que Casabonne le savait. Renaud répondit que non, il ne le savait pas, mais l'autre employa alors le même argument que les juges hidalgos, à savoir : A mon avis, il le savait donc il est coupable !


Le chanteur énervant s'énerva

Le chanteur énervant s'énerva, expliqua qu'au tribunal, Casabonne dont l'avocat avait été «interdit de plaidoirie» avait cité un vieux proverbe basque qui dit : «le foin dans le grenier c'est pour celui qui passe...», que son nom signifiait "bonne maison" et que c'était pour vivre son nom qu'il avait ouvert sa porte à ces

hommes traqués. Mais les tribunaux d'exception espagnols s'embarrassent rarement de poésie. Surtout lorsqu'ils refusent d'assister l'accusé d'un interprète... L'idole des jeunes ajouta que l'Eglise catholique, qui avait planqué impunément un Paul Touvier pendant 40 ans, aurait pu déceler dans l'attitude de Casabonne un comportement proche de l'idéal chrétien et que le gouvernement français qui avait accordé le droit d'asile à toutes sortes de tyrannaux exotiques et de criminels patentés, de Baby-Doc à Bokassa, d'Aoun aux époux Turenge, aurait pu aussi considérer que Casabonne, outre qu'il respectait la loi sur «l'assistance à personne en danger», était bel et bien un prisonnier d'opinion même si l'opinion du peuple basque importe peu à nos énarques en R 25, grands amis des droits de l'homme et de sa fiancée. Une chanteuse décatie en profita alors pour dire du mal de François Mitterrand, ce qui mit Renaud hors de lui. Il ne supportait les critiques à l'égard de son président préféré que lorsqu'elles émanaient de Jean-Pierre Chevènement ou de Lolita. On parla alors de la guerre de Le Golfe puis, au moment où Bébert amenait le champagne, on aborda le problème kurde qui est difficile à appréhender la bouche pleine de soufflé à l'Armagnac...».

Renaud, *Rendez-vous chez Bébert.*

Euskal kantu txapelketa 1992



Dimanche 3 mai, à Baigorri, sélection pour la Basse-Navarre d'Euskal kantu txapelketa devant mille personnes. Les lauréats sont Léonie Ibañez, Kolore bikotea, Etxeberri ahizpak, Patrizia Etxepare. Notre photo : le groupe Aihertarrak III, prix d'originalité, interprétant une chanson de Nino Ferrer "Kornixunak".

L'«Aspache» s'enchaîne

Les soutiens se multiplient. Des Belges, des Hollandais, des Anglais, des Allemands viennent occuper à leur tour le chantier du Somport. «No pasaran» est un cri espagnol et européen. Les soutiens se multiplient, le vôtre est nécessaire pour sauver Aspe, le desman, les villages et les ours. Votre soutien c'est votre signature sur cette pétition riche déjà de 60 000 noms.

Béton 1^{er}, laissez béton la répression ! Gardarem la vallée d'Aspe et les ours ! Non au tunnel du Somport ! Oui à la réhabilitation de la ligne Pau-Canfranc ! Le sauvetage de la planète commence par celui de la vallée d'Aspe !

Découpez, photocopiez, reproduisez ce texte, faites-le signer autour de vous et retournez le à Eric Petetin, coordination pour la sauvegarde active de la vallée d'Aspe - La Goutte d'eau 64490 Cette Eygun.

Notre couverture : Dimanche 10 mai à Senpere, la foule des euskalzale viendra à Herri Urrats pour faire vivre son ikastola.